



UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2025/09/29an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2025/11/24an

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik eta, halaber, erabilera publikoari atxikitako beste ondasun batzuegatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II- EGITATE EZARGARRIA

3. artikulua.-

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak eta, halaber, erabilera publikoari atxikitako beste ondasun batzuenak eratzten du egitate ezargaria.

III- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

5. artikulua.-

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, aprobetxamenduaren onuradun direnek.

IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua.-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V- OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua.-

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI- KUOTA

8. artikulua.-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa alde aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua.-

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX- TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urraketak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere Eranskina 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

XI- ERANSKINA

A epigrafea: Hesiak, aldamiok, zutabeak eta eustagak

1. tarifa: Eskonbroak eta eraikuntzarako materiala biltzeko metalezko edukinontziak, erremolkeak edo edozein motako ibilgailuak jartzeagatik, bakoitzak 9,15 €/eguneko.
2. tarifa: Obrako materialarekin eta/edo makinariarekin hesitu gabeko eremuetan jabari publikoa okupatzeagatik 1,89 €/m2/eguneko.
3. tarifa: Hesi, hesitura, ostiko, aldamio edo beste instalazio egokiekin eremu hesituetan bide publikoa okupatzeagatik, 0,96 €/m2/eguneko
4. tarifa: Bide publiko bat okupatu eta zirkulaziorako eta jendearentzat aldi baterako ixteagatik, 60,80 €/eguneko.
5. tarifa: Kale okupazioa Udaltzainen bidez seinaleztatzeagatik 68,50 €

KUOTAK

Ordainarazpen honengatik eska daitezkeen kuotak, eskatu edo emandako aprobetxamendu bakoitzagatik ordaindu beharko dira, eta tarifa bakoitzean aipatutako epe-muga murriztezinaren arabera ordaindu beharko dira. Baimena jasotzean ordaindu beharko dira eta hurrengo kuotak hileko lehenengo egunetan.

Tasaren ordainketatik salbuetsiak egongo dira edo hobaria izango dute Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan salbuetsita egon ziren edo hobariren bat izan zuten obrek. Hau da, zergaren kasuan hobariren bat izan zutenek, tasa honetan ere hobaria izango dute, proportzio berdineko hobaria.

Hobari desberdinak ez dira akumulatuko eta beti hobari altuena aplikatuko da.

Hobari edo salbuespen hauen onuradun izateko baldintzak Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarentzako bere Ordenantza arautzaileak jasotzen dituen berberak izango dira.

SALBUESPENAK

Eraikitze, errehabilitazio edo konponketa lanen ondorioz, jabari publikoko lur-okupazioa ematen denean obra-egilea udal-tasa ordaintzetik salbuetsita egongo da, eraikitze lanak egiteko okupatzen duen lur publikoa aktuazio berdinean, berak ordainduta eta Udalaren irizpideak jarraituz, berurbanizatu behar badu. Aipatutako okupazioa (eremua eta denbora nagusiki) Udalak finkatuko du.

Salbuespena izateko, okupatu den lur publikoa urbanizatu barik egotetik Udalaren irizpideen arabera urbanizatu egoerara igaro beharko da; halaber, okupatu den lur publikoa urbanizatuta balego, Udalaren irizpideen arabera berurbanizatu beharko da.

B epigrafea: Ibilgailuak espaloietan zehar finken barrualdera sartzea eta horien aparkaleku erreserba bide publikoan.

	€
Lehen tarifa: ibilgailuak espaloitik sartzearagatik, metro linealeko	
1 zenbakia: Ibilgailuen fabrikazio edo konponketarako erabiltzen diren lokaletan	44,52
2 zenbakia: Ekonomi Jardueren gaineko Zerga ordaintzen duten lokalengatik	
a) 15 langile edo gutxiago dutenek	22,69
b) 15 langile baino gehiago dutenek	42,19
3 zenbakia: Aurreko sailkapenetik kanpo geratzen diren lokaletan	
a) 3 plaza baino gutxiago	14,18
b) 3 eta 10 plaza artean dutenak	28,21
c) 11 eta 30 plaza bitartekoak	42,21
d) 31 eta 50 plaza bitartekoak	56,41
e) 50 plaza baino gehiagokoak	78,50
Bigarren tarifa: Galtzadan lekua iraunkorki erreserbatuta edukitzeagatik, metro linealeko.	
1 zenbakia: Ibilgailuen fabrikazio edo konponketarako erabiltzen diren lokaletan	67,51
2 zenbakia: Ekonomi Jardueren gaineko zerga ordaintzen duten lokaletan	
a) 15 langile edo gutxiagokoak	33,88
b) 15 langile baino gehiagokoak	67,59
3 zenbakia: Aurreko sailkapenetik kanpo geratzen diren lokalengatik	
a) 3 plaza baino gutxiago	28,21
b) 3 eta 10 plaza bitartekoak	56,41
c) 11 eta 30 plaza bitartekoak	84,41
d) 31 eta 50 plaza bitartekoak	113,71
e) 50 plaza baino gehiago	157,91
Hirugarren tarifa: ibilgailuak espaloitik sartu eta galtzadan lekua erreserbatzeagatik, metro linealeko:	
1 zenbakia: Ibilgailuen fabrikazio edo konponketarako erabiltzen diren lokaletan	90,38

2 zenbakia: Ekonomi Jardueren gaineko zerga ordaintzen duten lokalentzako	
a) 15 langile edo gutxiago	44,52
b) 15 langile baino gehiago	90,38
3 zenbakia: Aurreko sailkapenetik kanpo geratzen diren lokalentzako	
a) 3 plaza baino gutxiago	33,88
b) 3 eta 10 plaza bitartekoak	67,59
c) 11 eta 30 plaza bitartekoak	90,38
d) 31 eta 50 plaza bitartekoak	135,18
e) 50 plaza baino gehiago	189,21
Laugarren tarifa: galtzadan karga-deskarga lanetarako erreserba iraunkorragatik, metro linealeko	
a) Gehienez 6 ordu egunean	33,88
b) 6 ordu baino gehiago egunean	67,59
Bosgarren tarifa: noizean behingo beharreatatik erabilera desberdinetarako lekuak erreserbatzeagatik, metro linealeko	3,82
Seigarren tarifa: Ibi plaka	31,41

1.-Bosgarren tarifagatik eskatu beharreko kuotak aurkeztutako eskakizun bakoitzarengatik kitatuko dira.

2.-Zergaldia urte naturala izango da eta tasa honen kuotek horixe hartuko dute kontuan.

3.-Tasa sei hilabeteko epeaz zorpidetuko da, baimendutako edo baimendu gabeko aprobetxamenduari zein egunetan ekin zaion begiratu gabe.

4.-Seigarren tarifako tasaren ordainketa autolikidazio bidez izango da.

5.-Eguneko zentro eta ezinduentzako etxebizitza zerbitzu publikoek aparkaleku erreserba eskaerak egiten badituzte, honako irizpidea jarriko da.

Aparkaleku erreserba ordutegi batera mugatuta duten zerbitzuek ez dute erreserbagatik ezer ordaindu beharko.

Aparkaleku erreserba ordutegi muga gabe bada, erreserbagatik 65,40 €/urteko/metroko ordaindu beharko dute.

Ordutegi muga gehienez egunean 10 ordukoa izango da.

C epigrafea: Ferietako postuak

-Herriko jaiak:

kontzertu edo enkantearen arabera.

-Auzoetako jaiak eta bestelakoak:

0,97 €/m²/5 egunetan (edo zatia)

-Zirkoak:

1.- Kanposantu ondoko aparkaleku eremu osoaren okupazioa (edo baliokidea den eremuarena): 518,40 €/eguneko

2.- Kanposantu ondoko aparkaleku eremu erdiaren okupazioa (edo baliokidea den eremuarena): 260,25 €/eguneko

3.- Kanposantu ondoko aparkaleku eremu herenaren okupazioa (edo baliokidea den eremuarena): 173,50 €/eguneko

Tarifa orokorrak aplikatuko zaizkie emanaldiak dauden egunetan. Emanaldi aurreko eta emanaldi ondorengo egunetan, bietan, %100eko hobaria izango dute eta beste egunetan (emanaldi aurreko egunaren aurreko egunak eta emanaldi ondorengo egunaren ondorengoak) %50eko hobaria izango dute tarifaren aplikazioan.

D epigrafea: zanga eta luebakiak irekitzea

TARIFA BAKARRA: Eskatu edo emandako aprobetxamendu bakoitzarengatik eta obren iraupen egun bakoitzarengatik:

	€
Lehen epigrafea:	
1 zenbakia: Aprobetxamendua orokorrean, galtzada-espaloia edo herri erabilpenerako ondasunengatik, metro karratu edo frakzioko	2,08
2 zenbakia: Aprobetxamendua zeharbideetan bada	4,14
3 zenbakia: Aprobetxamenduak hilabete baino gehiago irauten badu, metro linealeko eta hilabeteko	40,18
Bigarren epigrafea:	
1 zenbakia: Kalikata edo zangak irekitzea, gehienez metro bateko zabalerakoak, metro lineal edo frakzioko	2,08
2 zenbakia: Aprobetxamendua zeharbideetan bada	4,14
3 zenbakia: Aprobetxamenduak hilabete baino gehiago irauten badu, metro linealeko eta hilabeteko	40,18

Kuota horiek % 400 igoko dira, aprobetxamendua Udalak emandako epea baino luzeagoa bada. % 50 gehiago ordaindu beharko dira, bide publiko batean urbanizazio-obrak egin eta hurrengo lehenengo urtean eskaera aurkeztu edo burutzen diren instalazio-obren kuotak.

E epigrafea: Udal bide publikoetako lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatiboa edo aprobetxamendu berezia

a)Horniketa zerbitzua ustiatzen duten enpresen kasuan.

Ikusi "Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen udal ordenantza fiskala".

b) Gainontzeko kasuetan

Lehen tarifa: Oinarriko azaleradun aprobetxamenduetan, terrenoen balioaren gaineko urteroko zerga-tasa, metro karratuko edo frakzioko 15%

	€
Bigarren tarifa: luzera-oinarria duten aprobetxamenduetan, terrenoen balioaren gaineko urteroko zerga-tasa, metro karratuko edo frakzioko	
Errailekin	20,16
Hodiekin	20,16
Hirugarren tarifa: Oinarrian elementu bakanak dituzten aprobetxamenduetan, eta elementu bakoitzeko aurreikusitako edo okupatutako azalera metro karratua baino gutxiagokoa denean, bakoitzagatik ordaindu beharreko urteko edo zatitu ezinezko kuotak hauek izango dira:	
Posteak, farolak, zutabeak eta antzekoak	20,16
Lotura, banaketa eta erregistro kaxak	16,17
Horma-besoak, euskarriak eta antzeko elementuak	2,08

F epigrafea: Irabazizko xedez, lurzoru publikoan mahaiak eta aulkiak jartzea

Hileroko karga-tasa, metro karratu edo frakzioko

8,72 €

Halaber, mahai eta aulkiekin lurzoru publikoa okupatzeko baimenei dagokien tasa autolikidazio sistema erabiliz kobratuko da aurrerantzean. Udalak, baimen eskaera aurkezten denean, autolikidazio erregimenean eskatuko du tasa hau.

Funtzionamendu arauak ondorengo hauek izango dira:

-Autolikidazioa, eskaera sartzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere 10 eguneko epean egin beharko da.

-Aurreko puntuan zehaztutakoa bete ezean, eskatzaileak bere eskariari uko egin diola ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluan aurreikusitako eraginekin, beste tramite gabe artxibatu egingo delarik.

-Autolikidazioa egiteko horretarako prestatuta Udal bulegoetan eskainiko den inprimakia bete beharko da eta kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa aurkeztu.

KUDEAKETA ARAUAK

1.- Ordainarazpena zorpidetuta ulertuko da baimena eman edo aprobetxamendua hasten den momentutik (beharrezko baimenik gabe hasitako kasuetan).

2.- Ordenantza honek arautzen dituen aprobetxamenduak lortzeko interesa duten entitate edo norbanakoek, udaletxean aurkeztu beharko dute eskaera, aprobetxamenduaren izaera eta hedadura zehaztuz.

3.- Eskatutako denboraldirako emango dira baimenak; beraz, beste denboraldi baterako baimena nahi baldin bada, behar den aurrerapenarekin, baimen-eskaera aurkeztu beharko du berriz ere interesatuak.

4.- Baimena ematerakoan, Udalak aprobetxamendurako azalera mugatuko du.

5.- Lurzoru publikoa mahai eta aulkiekin okupatzea arautzen duen ordenantza, epigrafe honen osagarria da.

6.- Kontzeptu honengatik zorrak izanez gero, Udalak terraza horiek kendu ahalko ditu.

HOBARIAK

Mahai eta aulkiak abuztuan izateagatik hobari hau egongo da:

-Abuztuan terraza izateagatik %75eko hobaria. Baldintzak:

- a) Urte berean beste hilabeteren baten ere terraza izatea
- b) Hilabete osoan zabalik egotea
- c) Terrazen arautegia abuztuan betetzea
- d) Ez izatea udalarekin inongo zorrik

Abuztuan terraza izateagatik %50eko hobaria. Baldintzak:

- a) Urte berean beste hilabeteren baten ere terraza izatea
- b) Abuztuan 3 astetan zabalik egotea
- c) Terrazen arautegia abuztuan betetzea
- d) Ez izatea udalarekin inongo zorrik

G epigrafea: Lurzoru publikoa kioskoekin okupatzea.

Aplikatuko den tasa, urtero, 51,41 €/m²-ko izango da.

Ordainarazpen honengatik eskatu beharreko kuotak hiruhilerokoak eta murriztu ezinak izango dira.

KUDEAKETA ARAUAK

1.-Kontzesioa ematen denean edo lurzoru publikoa, beharrezkoa den baimen barik, okupatzen denean zorpidetuko da ordainarazpena, eta hiruhilero hiruhilekoaren lehenengo egunean ondorengo aprobetxamenduengatik.

2.-Ordenantza honek arautzen dituen aprobetxamenduetakoren bat egin nahi duenak, dagokion eskaera aurkeztu behar du udaletxean, aprobetxamenduaren izaera eta hedadura zehaztuz, eta instalazioa jarri nahi den kokaleku zehatza adieraziko duen krokisa aurkeztuz.

3.-Aprobetxamendua lagatzen denean -lagatzeko arrazoiari begiratu gabe-, aprobetxamenduaren titularrek bajaren agiria bete beharra dute udal administrazioan. Hori egiten ez dutenek ordainarazpena ordaintzen jarraitu beharko dute. Bajaren deklarazioak bete ondorengo hiruhilabetekoan izango du eragina. Hala, instalazioak erabilgarriak badira, Udalak hartuko ditu bere kargu inolako kalte ordainik ordaindu gabe edota, bestela, erabiltezin bihurtzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu, kioskoa botatzea bidezkoa denean, utzi duenaren gain joango delarik kioskoa desmantelatzea, hala badagokio.

4.-Kioskoekin lurzoru publikoaren okupazioa arautzen duen Ordenantzak epigrafe honen izaera osagarria du.

H epigrafea: Kalez-kaleko salmentarako postuak lurzoru publikoan jartzea

-Postuak, elementu higigarriak, etab. jartzeagatik, egunean izango den karga-tasa ondokoa izango da 3,43 €/m²

-Merkatu-txikiko tarifa, hiruhilekoari dagokiona, tarifa orokorra (1,72 €/m²) bider 13 eginez kalkulatu da.

Ordainarazpen honengatik eskatu beharreko kuotak murriztu ezinak izango dira eta ondoko epeetan ordainduko dira:

- Dagokion baimena jasotzerakoan, erabilera 3 hilabetekoa edo gutxiagokoa bada.
- Hiruhilero, baimena 3 hilabete baino epe luzeagorako eman bada.

-Ibilgailuen bidez egiten den kalez kaleko salmenta: 124,20 €/hileko/baimeneko
Tarifa hau aplikatuko zaie urtarilaren 5ean, erramu zapatuan, san martinetan eta jaietan etortzen diren ibilgailuei.

I epigrafea: Kutxazain automatikoak

Tasa formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{Tasa} = O \times A \times I$$

O = Oinarrizko prezioa; 90,89 €/m²/urteko

A = Azalera; kutxazain automatiko baten erabilerak 2 m² hartzen ditu.

I = erabilpenaren intentsitatea; 2.

$$\text{Tasa} = 90,89 \text{ €/m}^2/\text{urteko} \times 2 \text{ m}^2 \times 2 = 363,56 \text{ €/urteko}$$

J epigrafea: Ikus-entzunezkoen grabazioak udal jabari publikoan

Tasa izango da 1,08 €/m²/eguneko

Honako kasu hauek ez daude tasaren menpe:

- Ospakizun herrikoien eta kirol-ekitaldien erretransmisioak.
- Zuzeneko albistegiak.
- Administrazio edo erakunde publikoentzat egindako grabazioak/argazkiak.
- Ikastetxe/unibertsitate/akademietako ikasleek egindako grabazioak/argazkiak, baldin eta heziketa-izaerakoak badira.
- Ongintza edo informazio helburua duten dokumentalak edo telebista-programak grabatzea.
- Filmaketak, baldin eta horien metraje gehiena Bergaran egiten bada eta/edo horren ondorioz gure balio kultural, etnologiko edo turistikoak sustatzen badira. Gainera, filmaketako lantalde osoak herrian ostatu hartu edo bizi beharko du (ekoizpen-etxeak Bergarako Udalari aurrez justifikatu beharko dio).
- Euskaraz bada, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesu badu eta udalak bere planetan bultzatzen dituen baloreak babestu eta bultzatzen baditu.
- Bergarako Udalak hitzarmen baten bitartez hala erabakiko balu.

K epigrafea: Udal ortuen erabilera

1. Udal ortuen erabilera da tasa honen zerga egitatea.
2. Udal ortuak erabiltzeko baimenen titularrak izango dira subjektu pasiboak.
3. Tasaren sortzapena urte bakoitzeko urtarilaren 1ean egingo da eta zergaldiak urte natural osoa hartuko du, erabilpenaren hastapenean edo amaieran izan ezik. Kasu honetan, kuota proportzionalki hilabeteka banatuko da.
4. Udal ortuak erabiltzeko araudia aplikatuko da gai honetan.
5. Udal ortuen erabilera hasi aurretik 50 €-ko fidantza ezarri beharko da.
6. Udal ortuak erabiltzeagatik urteko tasa 69,20 €-koa izango da. Tasa honen epealdia urte naturala da eta kuota soilik alta kasuan hainbanatuko dira.
7. Udal ortuak erabiltzeagatik tarifa soziala 0 €

Tarifa soziala aplikatzeko baldintzak:

-Elkarbizitza unitateak Bergaran erroldatuta egon behar du.

-Elkarbizitza unitateak diru-kopuru hau baino gutxiago jaso behar du:

Bi pertsonako unitate familiarra	20.105,04 €
Hiru pertsonako unitate familiarra	23.776,22 €
Lau pertsona edo gehiagoko unitate familiarra	27.447,27 €

*Kopuru hauek Gutxienezko Lanbidearteko Soldata oinarritzat hartuta kalkulatu dira.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA UDALETXEKO ERREGISTRO NAGUSIAN

1. NAN agiriaren fotokopia (unitate familiarra osatzen duten kide guztiena).
2. Pertsona Fisikoen Errentaren azken ekitaldiko aitortpenaren fotokopia edo, bestela, egin ez izana justifikatzeko agiria (Ogasunean emango zaio agiri hau).
3. Langabezian daudenek, Gizarte Segurantzako "lan-bizitza" agiria eta prestaziorik ez dutela jasotzen egiaztatze Lanbidek emandako agiria.
4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo antzeko laguntzarik jasotzen egonez gero, ez da aurkeztu beharko 2. eta 3. puntuetako dokumentazioa; baina aurkeztu egin beharko da DBE jasotzen ari izanaren egiaztagiria (Lanbiden).
8. Udalak ortu publiko kopuruaren %10a gordeko du interes-taldeei (irabazi asmorik gabeko elkarteak, eskolak eta antzekoak) zuzenean esleitzeko. Udalak zuzenean ortu publikoa esleitzen dien interes-taldeak salbuetsita egongo dira bai urteko tasa bai fidantza ordaintzetik.

L epigrafeak: Baserri bideen erabilera berezia

Erabilera berezitzat joko da baimendutako gehieneko pisu gordina (26 tona) gainditzen duten garraio-ibilgailuak baserri bideetan ibiltzea.

Edozelan ere, halako ibilgailuak bertatik pasatzea nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiekin zuzenki lotuta dagoenean (bazka, pentsuak, etab. eramatea), ez da erabilera berezitzat joko.

Erabilera berezitzat joko da "Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendu berezia arautzeko onartutako Ordenantza"n hirugarren artikuluan adierazitako ibilgailuak ibiltzea, baldin eta betelanak eta basogintzako lanak egiteko bada.

Hauek izango dira tasaren tributu elementuak: ibilgailua eta bidaia kopurua.

Interesdunek udal baimena beharko dute zolatuta dauden baserri bideak erabiltzeko.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira derrigorrez: erabiltzailearen datuak (garraiolaria edo kontratista), ibilgailuaren datuak (matrikula, tara, baimendutako gehieneko pisua), bidaia kopurua, eraman beharreko material tonak (pisua) eta noiz hasi eta bukatuko den erabilera.

Tasa 17,35 eurokoa izango da, bidaiako eta ibilgailuko.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA